

Abuztuaren 9an
URTEAN ZEHARREKO 19. IGANDEA

Agurra

Jaunaren grazia eta bakea izan bitez zuekin.

Sarrerako oharpena

Itxaropenaren jaia dugu Eukaristia. Itxaropenezko jaia, Jainkoak gugan baduelako itxaropena, Erreinua eraikitzen kementsu ari gaitezen. Eta baita ere guk geuk Jainkoagan badugulako itxaropen sendoa gure bizitzan duen indar-ematean eta babesean. Eukaristia honek zabal dezala gure begirada, Biziaren Jainkoa aurki dezagun eta Hari begira berri gaitezen.

Damu-otoitza

Senideok: aitor ditzagun gure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen:

- Jesus Jauna, gizakien adiskide maitekorra: Erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, fedearen iturri eta oinarri sendoa: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, barkamenez berritzen gaituzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Jainko ahalguztidun betierekoa, Espiritu Santuak irakatsirik
 Zuri Aita esateko eskubidea eman diguzu;
 sendotu gure bihotzetan zure seme-alabatzako espiritua,
 agindu diguzun bizi betean sar gaitezen.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santurekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren agertzeko bidea ez da lilura eta handikeria. Isiltasunean, eguneroko gauza apaletan, biziaren xumetasunean: han Jainkoa. Ebanjelioak ere konfiantzarako gonbitea egingo digu.

Lehenengo irakurgaia (1 Erg 19, 9a. 11-13a)

Erregeen liburitik

Egun haietan, Elias Horeba, Jaungoikoaren mendira, etorri, eta hango hartzulo batean sartu zen. Jaunak honela esan zion: «Atera, eta zaude mendian, Jaunaren aurrean; Jauna igaroko baita».

Hara, Haren aurretik haize zakar handi bat igaro zen, mendiak urratzen eta harkaitzak porrokatzen zituela: baina Jauna ez zegoen haizean. Haizearen ondoren, lurrikara; baina Jauna ez zegoen lurrikaran. Lurrikararen ondoren, sua; baina Jauna ez zegoen suan. Suaren ondoren, haize goxoaren zuzmurra. Hura entzun orduko, aurpegia soingainekoz estali zuen Eliasek; atera eta zutik gelditu zen hartzuloaren aurrean.

Erantzun-salmoa (Sal 84, 9ab-10. 11-12. 13-14)



Jau - na, zu - re on - gi - nai - a e - ra - kus e - zai - gu -
zu, zu - re sal - ba - me - na e - mai - gu - zu.



Entzungo dut Jaunak diogen hitza:

«Bakezkoa da Jaunaren hitza».

Hurbil zaie Haren beldur direnei salbamena:

gure lurrean Haren aintza biziko da. R/.

Onginahia eta leialtasuna elkarren bidera aterrako dira,

zuzentasuna eta bakea laztanka biziko dira.

Lurretik erneko da leialtasuna,

zerutik begira egongo, zuzentasuna. R/.

Jainkoak on dena emango du,

gure lurra bere uzta ekarriko du.

Zuzentasuna ibiliko da Haren aurrean,

eta salbamena, Haren urratsen bidean. R/.

Bigarren irakurgaia (*Erm 9, 1-5*)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei

Senideok: Kristau naizenez, egia esan behar dut; nire barruak, Espiritu Santuak argituta, esaten dit ez diodala gezurrik. Handia da nire atsekabea; etengabea, nire bihotzaren mina.

Anatema, Kristorengandik aldendua, izan nahi nuke nik, haragi aldetik nire senide eta senitarteko direnen alde. Israeldarrak dira hauek; eta beroiek dituzte semetzakoa, aintza, elkargoa, Legea, gurtza eta agintzariak. Hauenak dira aitalehenak, hauengandik dator, haragi aldetik, Kristo: gauza guztien gainetik dagoena, Jaungoiko bedeinkatua gizaldietan. Amen.

Aleluia (*Sal* 129, 5)

Jaunagan itxaroten nago,
nire barrena Haren hitzaren zain dago. R/.

Ebanjelioa (*Mt* 14, 22-33)**Homiliarako argibideak**

Zenbat aldiz galdetu diogu geure buruari non ote dabilen Jainkoa, zergatik ez ote duen bere presentzia nabarmenago agertzen, nola ez ote dituen bere bideak argiago eta ozenago erakusten? Gure ulertu-ezinari eta sinestu-ezinari sortzen zaizkion nahiak eta galderak dira horiek. Eta askotan, gauzak geure erara gertarazi nahi izaten ditugulako, eta Jainkoaren egintza geure erara irakurri nahi izaten dugulako, ez dugu Jainkoarenik ezer ikusten. Jainkoari antzematen ikasi beharko luke gure fedea, ongi izateko.

Jainkoarengana hurbiltzen garenean, ez gara sekula hutsean hurbiltzen. Aurrez jakin ohi dugu Jainkoa nor den, nolakoa den. Jainkoaren ideia aurrez finkatua eduki ohi dugu askotan. Eta ideia horren arabera, gehienetan iruditzen zaigu Jainkoari hobeto datorkiola handia, txikia baino. Gauza handiekin, indartsuekin uztartzen dugu Jainkoaren ideia. Eta horren arabera, gauza handien arrastoan, gertakizun nabarmenen harian bilatu ohi dugu Jainkoa. Eta, jakina!, ez dugu Jainkoa aurkitzen, ez diogu uste genuen bezala eta uste genituen tokietan antzematen.

Begi fededunek, Jaunaren presentzia irakurtzen badakite. Jauna beti gurekin baitoa, unti berean. Ez da, ez, guk nahi bezala agertzen. Baina, hantxe doa beti bidelagun. Lehenengo irakurgaiak ederki sailkatu ditu Jaunaren presentziaren moldeak. Gu indar zaleak gara. Nabarmenkeria zaleak. “Baina Jauna ez zegoen han”. Haize gozoaren zuzmurrean, hantxe ia ez entzun ez antzeman egiteko moduan. Baina hantxe! Presentzia suabea da, baina beti ere eraginkorra, askatzailea, onerakoa. Isiltasun sakona behar da presentzia hori entzuteko. Bihotz entzulea behar da aditzeko. Barrua bakean behar da, entzutea eragotziko digun builarik ez izateko. Jesus ez al zen mendira igotzen, isiltasunera, han bere Aitaren ahotsa entzuteko? Eta, ez al duzu ebanjelioko larrialdian ikusi? Jaunari entzuten zaionean, gurekin dihoala antzematen zaionean, bizitzak beste atsedena hartzen du, beste gozamina! Bizitza bere onera datorkizu, bere barealdira, sakonenean!

Pedrorena gertatzen zaio gure fedeari. Egun batean fedea besarkatu genuen, fedea esperientzia ederra iruditu zitzaigulako. Uretara, bizitzaren uretara salto egin genuen. Jesusen bideari betirako lotzeko prest geuden. Hain ederra eta hain bikaina eta hain erakargarria iruditu zitzaigun esperientzia hura! Gure fedea “konkista” ederra iruditu zitzaigun! Fedeaz jabetu! Horrek ederki erakusten du gure fedeak zer bilatzen duen: Jainkoaren presentzia patrikan eraman nahi genuen, geure beharretara tolestua. Baina, azal ustetsu eta indartsu hori erortzen denean, betiko ahuldadea agertzen zaigu barrutik, betiko beldurrak, betiko ezinak, geure gizalegea bere horretan! Fedeak ez baititu ahuldadea kentzen. Ahuldadean ere bakea ematen digu fedeak! (*ik. Ebanj.: Pedroren esperientzia*).

Honek guztiak zer erakusten ote digu? Fedearena ez dela agertzen gauza handietan, nabarmenkerietan, geure segurantzetan. Fedearen eguneroko bizitza arruntzean agertzen da. Eguneroko aire suabe eta

bare horretan. Jainkoa, ezer gertatzen ez den horretan agertu ohi da. Horrek bere eskakizunak ditu:

- Jainkoari txiki izaten utzi behar diogu. Oso gizalegezkoa agertzen da Jainkoa. Ahulengan agertu nahi du. Eguneroko bizitzako ur mugikor horietan agertzen da Jainkoa.
- Eguneroko bizitza arruntean adi bizi behar dugu. Arazoak ez dira erabaki handi eta builosoekin konponduko. Eguneroko ahalegin txikietan aldatzen da mundua. Eguneroko ahalegin ezerezak indar eragilea du.
- Jainkoa ez dabil gordeka, jolasean. Gurekin estu lotua dago. Baina gure askatasuna kateatu gabe. Jainkoak ez du ezer ezarri nahi, ez gaitu ezertara derrigortu nahi. Jainkoak oso xume jokutzen du. Oso isilean, oso gordean. Izenik gabeko jende maitalearengan agertzen da Jainkoa aire bare bezala.

Era honetako jokalegea ikasita, berriro ere itsas uretara joan behar dugu. Seguru ez denarekin atrebitzeko adina adore izan dezakegu. Fedeak, agian, ez digu segurantzarik emango, baina segurantzarik gabe konfiantzaz bizitzen erakutsiko digu. Politikan, kulturen, gizartean, lanean, kalean, ezkontzan, heziketan... gauzak kolokan daude. Oporretan ere, senti dezakegu gure leialtasunen koloka izutzailea. Segurantzak maite ditugu. Oinak seguruan tinkatuak nahi izaten ditugu. Baina ur gainean ibiltzen ausartu behar dugu. Bakoitzak daki non eta zertan esaten dion Jesusek "zatoz". Bakoitzak badakigu ondo asko non dagoen dagokigun itsasoa. Eta Jesusen dei horri erantzun egin behar zaio. Eta uste ona Jaunarengan jarritz, joaten ausartu. Harrokeriak alferrik dira. Asko-ustek pauso laburra du. Eta berehala ikus dezakegu gure harrokerien pisuaz ur azpira sartzen hasten garela. Zenbat eta arinago eta, onenean, hobeto genbilzke ur gainean. Konfiantza sendoareen besoetan, ez gara

urperatuko. Eta, gainera, beti hortxe daukagu Jesus, eskutik heltzen diguna!

Eukaristia ospatzera goaz. Igandeko Eukaristia. Ez ote dugu zuzmurra suabe eta bakeoso entzungo gaur? Bai. Hementxe, abuztuko goiz honetan, isiltasun sakonenean, Jaunaren presentzia entzugo dugu, entzuten dihardugu. Eta gero itsasora joango gara. Itsasuntziari sendo eutsiko diogu olatu handiaren artean bada ere. Jauna gurekin daukagula badakigu eta!

Jainkoaren herriaren otoitza

Egiogun otoitz Kristori, hitz eman zuen bezala entzun dezan Bere izenean bildu garenon otoitza.

- Bakearen alde, Elizen arteko batasunaren alde, gu guztion zorianaren alde. Egigun otoitz. R/.
- Behartsuen alde dihardutenen alde, adinekoei laguntzen dietenen alde, ahulak zaintzen dituztenen alde. Egigun otoitz. R/.
- Nekaturik eta ezinean daudenen alde, arriskuan direnen alde, loturik bizi direnen alde. Egigun otoitz. R/.
- Gure alde otoitz egiten dutenen alde, guk otoitzean gogoan ditugunen alde, gure hildakoen betiko atsedenen alde. Egigun otoitz. R/.

Jainko ahalguztidun betierekoa, Zure esku dituzu diren guztiak; entzun gure otoitzak eta egizu bizirik eta eginkor suma zaitzagula gure historian, zailtasunak eramanpenez onartu eta Zure erreinuaren bakerantz gertura gaitezen. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze ondorengo otoitza

**Hartu dugun sakramentu honek salba gaitzala, Jauna,
eta sendotu zure egiaren argitan.**

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.